

EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAK, 2023ko LEHENENGO SEIHILEKOAN BILTZARRAK ANTOLATZEKO

Helburua

2023ko lehenengo seihilekoan Euskal Autonomia Erkidegoan ikerketa zientifiko presentzialaren esparruko biltzarrak eta bilkurak antolatzeko laguntzaren deialdia egitea. Kongresu eta bilerak 2023ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean egin beharko dira.

Laguntzen gehienezko zenbatekoak:

		Aurrez aurrekoa	Birtuala
Kongresua	Nazioartekoa	20.000 €	10.000 €
	Estatukoa	10.000 €	5.000 €
Bilera zientifikoa	Nazioartekoa	7.500 €	3.750 €
	Estatukoa	4.000 €	2.000 €

Baztertutako ekintzak:

Batez ere prestakuntzarako diren ikastaro eta jarduerak; hala nola, prestakuntza jardunaldiak, tailerrak eta irakaskuntzarako zein ikaskuntzarako gaikuntza mintegiak, doktorego programei, masterrei eta/edo graduondokoei loturiko bilkurak, baita etengabeko prestakuntzako jarduerak, atak zabaltzeko jardunaldiak eta zuzenean ikerketa zientifikoaren esparruari lotuta ez dauden jardunbide egokiak partekatzeko jardunaldiak ere.

Diruz lagun daitezkeen jarduerak:

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak	Kongresua		Bilera zientifikoa	
	Aurrez aurrekoa	Birtuala	Aurrez aurrekoa	Birtuala
Ekitaldia antolatzea	x	x	x	x
Jardueraren zabalkundea eta argitalpena	x	x	x	x
Hizlarien bidaia, ostua eta mantenua	x		x	
Hizlarien haborokinak	x	x	x	x
Ikertzaile gazteen inskripzio-kuotetako hobariak	x	x	x	x
Ikertzaile gazteen bidaia eta ostua	x		x	
Sariak	x	x		

Eskaera aurkezteko epea

2023ko otsailaren 2ra arte (egun hori barne)

UPV/EHUko PROZEDURA:

Eskaera behar bezala aurkeztutakotzat hartuko da UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeak sinadura elektronikoaren bidez bermatzen badu epe barruan. Beraz, ikertzaile interesdunek beren eskaera aplikazioan amaitu eta posta elektronikoz jakinarazi beharko dute lgz.deialdiak@ehu.eus helbidean, **urtarrilaren 31a arte 08:00etan (egun hori barne)**. Egun horretatik aurrera ezin izango da sinadura eskaeraren epean bermatu.

Eskaerak aurkeztea:

Eskaerak:

https://www.euskadi.eus/diruz_laguntza/2023/ikerbilerak-1semestre/web01-tramite/eu/

helbideko aplikazioaren bidez telematikoki eskuratu ahal izango den formularioaren bidez bete beharko dira.

1. Horretarako, eskatzaileak alta egin beharko du erabiltzaile gisa, eta aipatu aplikazioan zehaztutako argibideei jarraitu beharko die.
2. Eskaera betetakoan, eskatzen diren dokumentuak erantsiko dira.
3. Aurreko izapidea amaitutakoan, lgz.deialdiak@ehu.eus helbidean **jakinarazi beharko du**. UPV/EHUren legezko ordezkariaren sinadura elektronikoa bideratu ahal izateko. **Sinadura hori gabe eskaera ez da erregistratuta geratuko.**

Dokumentazioa:

Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

1. Jardueraren memoria zientifikoa, honako hauek jasoko dituen:

- a. Ekimenaren garrantzia.
- b. Behin-behineko edo behin betiko egitaraua, egutegia eta hizlariak, eta jardueraren berri ematen duen web orriaren esteka.
- c. Batzorde antolatzailea, batzorde zientifikoa eta hautaketa batzordea nortzuek osatzen duten, halakorik baldin badago.

2. Eskatutako zenbatekoaren justifikazioa, kontzeptua, unitateak, helburua, zenbatekoak eta aurrekontuak zehaztuta. Proforma fakturak erantsi beharko dira, ahal den heinean.

Puntu honetan, **gutxien-gutxienik, Eusko Jaurlaritzari eskaturiko funtsak** zehaztu behar dira (eskariaren D atala), nahiz kongresu osoaren gastuen justifikazio osoa ere ager daitekeen.

3. Deialdia egiten duen eta/edo ekimena antolatzen duen erakundearen saileko kontseiluaren edo gorengo mailako batzordearen akta, ekimenaren deialdia egiteko edo hura antolatzeko onarpena, konpromisoa eta erantzukizuna berariaz jasotzen duena.

4. **Gonbidatutako parte hartzaileek parte hartzea onartu dutelako egiaztageria.**

Aplikazioan, eskuragarri dago agiri horren txantilo bat. Hizlari bakoitzeko agiri bat bete behar da, hizlari bakoitzaren sinadurarekin.

5. Laguntza honen eskabideko epea amaitzean, eskatu edo eskuratu diren laguntzak egiaztatzea.

6. **Erantzukizunpeko adierazpena.**

Helburu bererako lortu den edo lortu ahal den subentzio, laguntza, diru sarrera edo bestelako baliabide justifikatu behar da, eskaera egiteko inprimakiaren C atalean adierazi bezala.

- Subentzioen kasuan, emandakoa bada ebazpena agertu beharko da, emandako zenbatekoa bertan dela eta eskatu edo ebazteko diren subentzioen kasuan, kasuan kasuko deialdira aurkeztutako eskaria agertu beharko da.
- Bestelako diru sarreraren kasuan, eragilearen gutun sinatua agertu beharko da, kongresuaren finantzetan laguntzeko konpromisoa eta emango duen zenbatekoa erakutsiz.

Aurekontua egiteko argibideak:

OHAR GARRANTZITSUA:

Aurrekontuak ez du karratua egon behar.

Horrela, **DIRU-SARREREN** atala honela bete beharko litzateke:

- Inskripzioak
- Emandako diru-laguntzak
- Dagoeneko itxita dauden babesletzak BESTE DIRU-SARRERA BATZUK atalean.
- Inskripzioen aurreikuspena

ESKATUTAKO diru-laguntzak ez dira agertu behar eskaeran diru-sarrera gisa, ezta eskatzen diren gastuen justifikazioan ere

Laguntza honek emandako zenbatekoaren **hirukoitza** den zenbateko bat justifikatzeko betebeharra dakar (Eusko Jaurlaritzak biltzarrean zehar deialdian baimendutako kontzeptuetan eginiko gastuaren herena soilik ordaintzen du).

2/3 kofinantzatzeko, ezingo da Eusko Jaurlaritzako ikertaldearen dirua erabili.

Beraz, emakidaren ondoren, kreditua erreserbatuta geldituko da. Unibertsitatearen aurrekontuetan beste finantziazio iturri batzuk erabilgarri badaudela egiaztatu ahala, pixkanaka Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzari dagokion zenbatekoa ordaintzen joango da.

Erakundearen datuak:

Erakundearen (UPV/EHU) datu hauek behar dira eskaera betetzeko:

- **IFK:** Q4818001B
- **Helbide soziala:** Sarriena auzoa, zk.g.
- **Posta kodea:** 48940
- **Herria:** Leioa (Bizkaia)
- **Legezko ordezkaria:** Inmaculada Arostegui Madariaga
- **Kargua:** Ikerketaren arloko errektoreordea

Harremanetarako datuak:

UPV/EHU: Marina Muguerza Tfno.: 94 601 8171 Helbide elektronikoa: igz.deialdiak@ehu.eus	Eusko Jaurlaritza: Leire Gisasola Atxabal Tfno.: 945 01 55 24 Helbide elektronikoa: leire.gisasola@euskadi.eus
--	---